

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Olibia, Risky, Txop Suey eta Mohamed

Joxemari Iturralde

ELKAR

124 orrialde

10 euro

Ikaskide berriak, atzerritik etorriak

Hamar urtetik aurrerako irakurleak gogoan dituela idatzi du Joxemari Iturralde *Olibia, Risky, Txop Suey eta Mohamed* kontakizuna. Iñaki Martiarena *Mattin*-en marrazkiz alaituriko istorioan Risky eta bere ohiko lagunak –Gomax, Txilibitu, Titizia, Ezpainbete eta besteek– azaltzen zaizkigu, baina koadrila hori handitzera doa, ikastetxera atzerriko lagun asko iritsi direlako: Muhmi Tunisiakoa, Fatima Errumania-koa, Olibia Mexikokoa, Txop Suey Txinakoa, Tarik Marokokoa, Hamada Sharakoa... Izenak ez ezik, haien ohiturak ere bitxiak iruditzen zaizkie euskaldunei.

Ohartu arte beraiek ere harrigarriak direla besteentzat, eta gainera haietatik denek ez dituztela usadio berdinak ezta hizkuntza bera ere. ■

Iazko Irun Hiria eleberri-saria

Mikel Olano Irurtiak idatzitako *Azkuko belagaian* nobelak irabazi zuen 2007ko eleberri-saria Irun Hiria literatur lehiaketan. Nikaraguko hiri batean lankidetza-programa bat aurrera eramatearekin amets egiten duen emakumea du protagonista. Sendagilea da lanbidez, baina Nikaraguan lehen hezkuntzako ikastetxe bateko zuzendaritza-taldean lan egiteko helburuarekin aurkeztu du bere burua haraino joatea ahalbideratuko dion Gobernu Kanpoko Erakundearen. Nolanahi ere, ametseko bidaia atzeratu egingo zaio, eta bitartean gainbehera doan Estarta izeneko herririkara bidaliko dute sendagile. Handik laster alde egingo duela jakinik, zaindu behar dituenak urruntasunez tratatzen ahaleginduko da medikua; modu berean erantzungo diote herritarrek, bere jarrera ikusita. ■



Azkuko belagaian

Mikel Olano Irurtia

KUTXA FUNDAZIOA

152 orrialde

10 euro



Karmel 262.

Batzuen artean

EUSKAL HERRIKO KARMELDARRAK

312 orrialde

13 euro (urteko harpidetza)

Karmel-ek ale berezi bi, Julen Urkiza zuzendaria omentzeko

Euskal Herriko karmeldarrek plazaratzen duten aldizkariak zuzendari ugari ezagutu ditu bere historia luzean. Bi gogoratzeagatik, Lino Akesolo, gerra aurreko azkena, eta Santiago Onaindia, gerra ostean *Karmel* berriro argitaratzeaz arduratu zena aipa genitzake. Euskararen eta euskal kulturaren alde, baita formazio erlijiosoaren eta benetako etorkizunaren alde lan egiteko asmoz plazaratzen da *Karmel* aldizkaria, eta azken 25 urteotan (1984tik 2008ra) zuzendari bera izan du: Julen Urkiza. Ospatzeko kontua zela-eta, ale berezi bi kaleratu dituzte oraingoan. Orri kopuru mardula dute biek. Aurrenekoak ohiko aldizkariaren mamia du, 312 orri eta 35 idazleren ekarpenak. ■

Karmel-en bibliografia osoa

Aldizkariaren zuzendaritzan 25 urte bete dituela irakurleekin ospatzeko, *Karmel*-en historia luzeko (1931-2008) bibliografia osoa eskaini du zenbaki berezi honetan Julen Urkizak. Aurretik ere plazaratua zegoen aldizkariaren bibliografia, baina zatika: esate baterako, Julen Urkizak berak argitaratua zuen *Karmengo Argia*-koa (1931-1936); eta *Karmel*-ena: (1957-1961), (1970-1985), (1985-1987) eta (1995-2002); Anjel Loberak berriz, 1970-1994 bitarteko bibliografia kaleratu zuen. Aurretik egindako lan hori osatu du Urkizak, 2003-2007 bitarteko bibliografia Loberarenari gehituz. Bibliografia osoa bi eratara dago egituratua: idazlez idazle eta gaien arabera. Idazleak alfabetikoki daude sailkatuta, jarraian egindako ekarpena eskainiz. Gaien atalean bertso eta olerkiak gutxiago hartu dira kontuan, ez luzatzearren. ■




Karmel 263.

Batzuen artean

EUSKAL HERRIKO
KARMELDARRAK

338 orrialde

13 euro
(urteko harpidetza)



Tom hil da Marie Darrieussecq

ALBERDANIA
176 orrialde
19 euro

Ama bere haur txikiaren galeraren aurrean

1969an Baionan sortutako Marie Darrieussecq idazlea finalista gelditu zen Goncourt literatur lehiaketan *Tom est mort* nobelarekin. Karlos Zabalak *Tom hil da* tituluaz euskaratu du nobela hori orain. Hamar urte lehenago lau urte eta erdiko semea hil zitzaion ama du kontalari. Epe horretan sentimendu lazgarri guztiak izan ditu emakumeak, haurraren heriotzari aurre egin nahian: hasierako ezin sinetsizkotik ikara gorrira, suminduraren erditik gorroto gogorrera. Beste bi umeren ama da, baina argi dauka Tomen anaia zaharrraren eta arreba txikiaren ama oraindik bizi

bada ere, Tomen ama ezetz, hura hil egin zela, bere mutiko txikia hil zen une berean. ■

Pasaiko herriko notizia, bertso, kanta eta marrazkitan

Pasai-Donibaneko Lintxua dendak berrargitaratu du *Pasaiko herri* liburu, 1981eko edizioa CD batekin eta parte hartzaile berriekin osatuz. Herriko notizia bertsotan jarri zuenarekin hasi, Xenpelarrekin alegia, eta gaur egungo artistetaraino: Mikel Laboak musikatutako bertsoak, Koldo Izagirreren azalpenak euskaraz eta gaztelaniaz eta Joxe Alberdi "Donibane"-ren marrazkiak. Gainera, edizio berria euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, katalanez, galizieraz eta ingelesez kaleratu da, hainbat itzultzailearen lanari esker. ■

Pasaiko herri

Batzuen artean

LINTXUA

48 orrialde + CDa



PEDRO MARTIN

«Garbi azaldu nahi izan dut gastronomia kultura ere badela»

Gastronomiari eskainitako zortzi liburu badituzu plazaratuak. Haiek osatzean, zertan jarri izan duzu bereziki arreta?

Garbi azaldu nahi izan dut gastronomia kultura ere badela. Horretarako, liburu guztietan gastronomia, kultura eta argibideak batu izan ditut. Denetan aurkituko ditu irakurleak honako zehaztasunok: pintxo edo plateren batzuk nola egin daitezkeen; horiek horrela egiten dituen ostatuaren argibideak eta jate-txe hori kokatutako herriaren historia eta idiosinkrasia. Horretara mugatzen naiz, ni ez naizelako inor pintxo edo plater bati kalifikazioa jartzeko, ezta herri bat bestea baino ederragoa dela epaitzeko ere.

Zer aurkituko du irakurleak *Cocina vasca con encanto. Las mejores recetas de las casas rurales-en?*

Aurrekoetan ibilitako bide berari jarraitu diot, eta espero dut liburuan agertzen diren argazkiak (Alex Iturraldekin egin dituzten guztiak) eta bildu dituzdan sukalde errezetak, baserri etxeen kokalekuaren gaineko zehaztasunak eta aldiro aipatzen dudana baserri etxeari buruzko argibideak balioko diotela irakurleari antzemateko gure baserri etxe, landa turismo eta baserri hotelek daukaten eskaintza turistikoaren, gastronomikoaren eta kulturalaren maila.

Nolakoa da maila hori?

Ziurtatu dezaket baserri etxeetako erosotasunak, harremana eta zerbitzuak ez diotela inongo inbidiarik izan behar gure hiri handi eta txikietan dauden bestelako ostalaritza etxeetakoiei. Alde on nabarmena dute, gainera, baserri etxeek: lasaitasuna eskaintzen dute eta etxeko produktu biologikoekin egindako gastronomia.



egileari galdezka

Baserri etxeetako sukalde errezetarik onenak

Juan Mari Arzak, Martín Berasategi eta Koldo Roderosukaldari en hitzaurrekin plazaratu du Pedro Martínek baserri etxeetako sukaldeari eskaini dion liburu. Txertoa argitaltxearen bidez argitaratu duen *Cocina vasca con encanto. Las mejores recetas de las casas rurales* liburuan Euskal Herri osoko baserri edo landa etxeetan aurki daitezkeen plater gozoenak izan ditu kontuan euskal gastronomian aditu dugun Pedro Martínek.

1992an kaleratu zuen *Pintxos donostiarras* ziri-mokaduei buruzko aurreneko liburua; 1995ean *Donostia pintxo a pintxo* lana; 1996an *101 Sociedades Gastronómicas de Gipuzkoa* eman zuen argitara, eta Perigueux-eko (Frantzia) nazioarteko lehiaketan eskualdeko sukaldaritzari buruzko liburu hoberearen saria irabazi zuen; 1999an *El Camino de Santiago plato a*



Cocina vasca con encanto

Pedro Martín

TXERTOA

288 orrialde

30 euro

plato; 2004an *Ruta de monasterios de Euskal Herria* eta *Pinchos de Pamplona*, eta 2005ean *Los mejores pintxos de Donostia*. Aste honetan aurkeztu dizuegun lanean aipatutako baserri etxe bakoitzeko kokalekuaz eta platerik onenen errezeptak gainera, etxea osorik alokatzeko aukerarik dagoen ala ez, eta nekazaritza lanetan parte hartzerik izan dezakegun ala ez ere zehaztu du. ■